

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Hezurrak eta gezurrak iraganaren uretan



Amaia Serrano Mariezkurrena

Zulo bat uretan egitea ezinezkoa dela pentsa lezake batek, baina Iñigo Aranbarrik lortu zuen liburu honekin, eta ederki lortu ere. Hasierak bete-bete harrapatzen du irakurlea, narrazio handien gainbeherarekin lot daitekeen gertaera batekin: kapitain nazi batek bere buruaz beste egiten du Buenos Airesko hotel batean. Hortik denbora-espazio ezberdinetan kokatzen diren zenbait narrazio hedatzen dira.

Itoizko urtegia betetzeko herriak (are hilerriak) husten hasi ziren garaian kokatzen da hari nagusia, 2003an. Urak historia estali aurretik, ordea, iragana azaleratzeko azken ahaleginean dabilen hirukotea dakusagu. Maite antropologo-forentseak du gorpuak hilerritik ateratzeko ardura, eta lan horretan inplikatu ditu Imanol kazetaria eta Oscar laguntzaile argentinarra. Emakumezkoak du indar zentripetua, baina narratzaile eginkizuna bi gizonezkoen bano ez zaie ematen. Hala, Oscarren aitona marinelen istorioak eta Juana nafar gorriaren heriotza-moduak gatibatuta, bidaia historiko-literario bat eraikitzen du Imanolek: Hitlerren itsasgizonena eta 40ko hamarkadan Nafarroan eraildako emakumearena. Halere, oroitzapenak biltzeko elkarrizketaren batean Imanolen kazetari senak irrist egiten duela dirudi, eta bere jarrera xaloak sinesgarritasunari kalte egin diezaioke. Oscarrek, aldiz, Argentinako diktadura dakar berekin, jazarpenaren minak eta oroimen-asmazioek osaturiko errelatoan.


Iraganaren zama daramate Imanolek eta Oscarrek. Galtzaileak dira, galtzaileen istorioak berreraikitzen. Historia be-

Zulo bat uretan

IÑIGO ARANBARRI

Susa, 2008

Iñigo Aranbarri Alberdi idazlea
(Azkoitia, 1963).



rridazteko ahaleginean sortzen diren arazoek erakusten dute zenbateraino den hura zeregin konplexua. Asmo horretan, Oscarrek iraganak egiatik zer duen zalantzan jarriko du.

Oroitzapenak eta hausnarketak bidea urratuz doaz eleberrian, ura nola. Pertsonaien gogotok ezagutu ahala, haien alderdi makurrak agertuko dira, baita bestelako arazo sozialak, historikoak eta familiarrak ere. Gazi hori, baina, Aranbarriren prosaren gozoak orekatzen du. Ez soilik euskararen erabilera bikainagatik, narrazio osoan zehar ematen diren erreferentzia artistikoei eta oroitzapenen arteko lotura semantikoei borobiltzen dute obra hau.

Testuinguru ilun horretan, egia ezkutatu nahiak eraginda, norbaitek Imanoli bere *Mont Blanca* lapurtzen dio, idazteari uzteko gonbit moduan. Alabaina, kazetariak, historiagileak zein literatura sortzaileak armarik badu, hori bolaluma da. Bestela, galde diezaiotela hamaika pausotan azkena eman duen Iñaki Abaituari. ■